

# ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUAK



Salaketa jartzea



Bidelaguntza



Aholkularitza  
psikologikoa



Aholkularitza  
juridikoa



Laguntza  
ekonomikoa



Sexualitate,  
genero eta bikote  
aholkularitza



Lanketa  
kolektiboak



Pertsona bakoitzaren beharren  
arabera aktibatuko dira zerbitzuak.

## HARREMANETARAKO

### GIZARTE ZERBITZUAK

📞 943 157 192

📍 Matxinada kalea, 3 eta 4

### EMAKUMEEN TXOKOA

📞 688 751 000

📍 Goiko Kale, 12 behea

### UDALTZAINGOA

📞 092

📍 Enparan kalea, 1



Escanéa aquí para leer  
la información en otros  
idiomas

# IPARRIZAR

Indarkeria matxista  
bizi dutenentzako  
arreta integrala  
eta diziplinarterkoa

## NORI DAGO ZUZENDUTA?

Azpeitian bizi diren indarkeria matxista jasaten edo iraganean pairatu duten **emakumeak eta LGTBIQ+ kolektiboko pertsonak** artatzen dira, haiek hala nahi badute.

Egoera horretan dagoen norbait ezagutuz gero jarri gurekin harremanetan informazio guztia eskuratzeko.


Sarbidea irekia eta baldintzarik gabekoa da.

Zalantzarik izanez gero, harremanetan jarri eta erantzungo dizugu.

## ZERTAN DATZA ZERBITZUA?

Indarkeria matxistaren aurrean erantzun integrala eta diziplinartekoa eskaintzen duen udal zerbitzua da. Horren bitartez, **erdigunean kokatzen dira indarkeria matxistari aurre egiten ari direnen beharrak eta ongizatea, berbiktimizazioa saihestuz eta arreta eraginkorra zein erreparatzailea bermatuz.**

## SARBIDEAK



Iparrizar, hiru sarbide dituen zerbitzua da: **Gizarte Zerbitzuak, Emakumeen Txokoa eta Udaltzaingoa**. Beraz, pertsonak erosoan, hurbilen edo seguruen sentitzen duen espaziora joateko aukera izango du.

Zerbitzura sartzeko **ez da beharrezkoa izango salaketa** jarri izana, eta, halaber, zerbitzuan sartzeak ez du esan nahi salaketa jarriko denik.